

Bekatatutik libre?

“Substantzia bakar batek ere ez dizu lagunduko eskuadratik gola sartzen”. Egia da Realeko jokalaririk Xabi Prietok dioena. Baina ez da nahikoa arrazoi futbolariak dopinaz baliatzen direla ukatzeko, debekatutako substantzia batzuek errendimendua hobetzen lagundu dezaketelako.

| JON TORNER ZABALA |

Argazkia: dondenacio.com

ORAINGOZ kasu bakan batzuk besterik ez dira ezagutarazi, eta ezin dezakegu esan dopina praktika orokorra denik futboleant. Dena den, Carlos bezala sinatzen duen internautak *Que viva el deporte* blogean idatzitako *El dopaje en el fútbol* (Dopina futboleant) artikuluan dioten bezala, eliteko kirolari atxikirik doakion ezaugarria da dopina, baita futbolari ere: “Batzuek esango dute futbolak osagai tekniko handia duela, eta ez duela zentzurik dopatzeak. Baina eliteko kirolaren esentzia gaitasun fisikoa da. Hura gabe, kirolari batek ezin dezake azkartasunez erreakzionatu”. Dopinaren aurkako kontrolak txirrindularitza bezain zorrotzak ez direla erakusten duten datuak ere ematen ditu. Esaterako: Frantzia, urtero, hamar ziklistatik batek pasatzen ditu kontrolak. Futboleant, bi milatik batek.

Bestalde, 2002an *El País* egunkarian plazaratutako *Al fútbol el EPO le va bien* (EPOa futbolari ongi doakio) artikuluan testosteronaz eta haren deribatu sintetikoek —esteroide anabolizatzaileek— mintzo da Alejandro Lucia kazetaria, masa muskularra handitzen duten heinean. Halaber, eritropoyetina (EPO) eta haren deribatuak ditu hizpide. “Botika horiei esker, oxigeno gehiago garraia daiteke odoletik muskuluetara, eta kirolariaren gehienezko oxigeno kopurua (VO2) hobetzen da”, dio Luciak. “Futboleant, VO2 handitu izana batez ere sumatuko litzateke *sprint* baten osteko errekupeazio gaitasunean”.



Frantzia, urtero, hamar ziklistatik batek pasatzen ditu kontrolak. Futboleant, bi milatik batek.

Fuentesen paperak

Realak ziprztindu duen auziari dagokionez, Espainiako Dopinaren Aurkako Agentziarentzat osasun publikoaren aurkako delituaren zantzuak daude, ustez Eufemiano Fuentes medikuari erositako sendagaiak ez daudelako baimendurik Espainiako Estatuan, eta ilegal-ki eraman zituztelako Donostiara. Nazioarteko Agentziak (WADA), ordea, oraingoz esku ez hartzea erabaki du, substantzia horietako batzuk ez direlako ageri produktu debekatuen zerrendan. Esaterako, Thiocitacid (antioxida-tzailea) eta Thym-Uvocal (sistema immuno-logikoa indartzen du). Actovegin (behi-odolaren estraktua) substantziaren kasua ere konplikatu da, produktu debekatuen zerrendan sartu ala ez eztabaida-iturri agortezina delako, Carlos Arribas eta Juan Jose Mateo kazetariak *El País*en azaldu duten moduan. Fuentesek ustez Realari saldu zizkion substantzietako bakar bat besterik ez da sartzen argi eta garbi zerrenda horretan: detektatze-rik ez dagoen Igf1 delakoa, organismoak hazkunde hormonak naturalki sortzea errazten duen proteina.

Ikusiko dugu hau guztia nola amaituko den. Gaur gaurkoz ez dago frogar bakar bat Realak dopinarekin lotzen duenik. Ezta futboleant ohiko praktika dela erakusten duen kasurik ere. Baina egunen batean azaleratuko balira, dagokion oihartzuna eman beharko litzaioke, eta neurriak hartu, futbolak zein indar duen guztiok dakigun arren. ■

Bertsio osatua, argia.com-eko *Slump* doktoarearen zaintiratu blogean.

